

Perspektibaz, inoiz baino gehiago

Heldu da. Heldu behar zen momentua heldu. Luzea izan da azkeneko parte, dinamika askoren mugatzaile sekundarioa. Iraganean da, urtu da erakunde zena. Zer berok urtu duen nork bere kontakizuna, intereseko eztabaidagai dudarik ez, baina urtu. Jakin beharko da kudeatzen iragan hori, eta besteak, baina ezin hori orainaldiaren ardatz jarri.

Erakundeak ez direla zertan betirako izan seinale; politikoak ere ez. Helbide izan daitezke, unean unekoak, norabidean asmatu edo ez, baina inoiz ez helburu. Helburuak burujabetza soziala eratzen gauzatzen dira, eta bide horretan era askotako erakundeak helbide behar badira ere, aldian aldikoak, seguruenik bat ere ez da behin betikoa. Eta, beharbada, gaur ez direnak beharko ziren gaur!

Tira! Akabo zooma erakunde zenaren bueltan jartzea, aitzakia edo helduleku. Benetan "denbora berria" zabaldu bada izan dadila "angelu handia" jartzekoa, begirada eta behatoki berrien garaia, gurutze-bide zaharrak utzi eta bestelako bide sozio-politikoak zabaltzekoa. Perspektibaz jokatzeko garaia da, inoiz baino gehiago, helburua egunerokora mugatzen dutenak deseroso utzi arteko perspektiba sozial sinesgarriaz.



Iñaki Antigüedad

EHU-KO IRAKASLEA

Ziklo bat amaitu eta denbora berria hasi, omen. Gizarte zibilari begira kostatzen da egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai

Pragmatismo eraldatzailea mugatzailearen aurrean. Gizarte politikoaz nago, gizarte zibilaren zatiak beren kabuz ari direlako, aparte.

Ziklo bat amaitu eta denbora berria hasi, omen. Gizarte zibilari begira kostatzen da egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai

egiten zait ziklotan pentsatzea. Mugatzaile hartzen dut ziklo hitza, eta denbora berria ere bai. Zentzuzkoagoa zait pentsatzea denbora etengabea dela, eta *continuum* horretan modu eraginkorrean egiten duguna dela burujabetza sozialera hurbiltzen gaituena. Denbora berria baino gehiago, aukera berriak sortu. Eragin, egin baino gehiago, eragin gizarte zibilean; aldaketek behar dituzten baldintzak gauzatzen joateko eragin, perspektibaz eta pragmatismoaz. Hortaz, eragin egin dezaketen eragile sozialak mugitzeko garaia da, direnena eta ez direnena ere, baina mugitzea ez da nahikoa, beharrezkoa bada ere, aldaketak gauzatu behar dira, trantsizioen bidean izan arren.

Gure Esku Dago hor da, gizarte sozialean txalogarri eragiten. Baina datuak datu, zenbat eta herria hiriago izan orduan eta esku-hartzea txikiago izateak pentsarazi behar digu jauzi handiegia dagoela oraindik gizarte zibilaren eta politikoaren artean. Eta hori ez da zikloa konpontzen, perspektibaz eta pragmatismoaz baino, etenik ez denboran. Katalunia gogoan. Iragana izan zenetik gauza asko ikasi daitezke, baina funtsezkoenak orainalditik ikasi behar ditugu eta geroko aldaketen bidean gauzatu. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)